



UNESCO Etxea 02 koadernoak:

Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubidea zabalduz

MGHetatik GIHetara eta Agenda 2030era

Agenda 2030ek MGHen (Milurteko Garapen Helburuak) lekukoa hartu du eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburu (GIH) planteatzen ditu, 15 urteko epean lortzeko. Nazio Batuen Erakundeko (NBE) 193 estatu kidek onartutako beste ibilbide-orri bat da, MGHen aurreko prozesuan **ikasitako irakasgaiak** txertatzeko eta **pobrezia ezabatzen, urrakortasunak murrizten eta planeta babesten aurrerapausoak egiten jarraitzeko** beste aukera bat.

Agenda horren xedea desberdintasunak murriztea da, iparraldeko nahiz hegoaldeko herrialdeetan lan eginez eta giza eskubideei, gizon eta emakumeen arteko kontuei eta ingurumen-aldagaiari garrantzi handiagoa emanaz. Berritasun gisa, agenda berri hori modu parte-hartzailean eraiki da, gizarte zibileko hainbat eta hainbat agente eta erakunderen iritzia jasoz.

17 GIHak hainbat gairi buruzkoak dira, esaterako, osasuna, genero-berdintasuna, hezkuntza, energia, klima-aldaketa, kontsumoa edo produkzio jasangarria. GIH gehienek urarekin eta saneamenduarekin zerikusia duten arren, 6. GIHren ardatza da “ura izatea, horren kudeaketa jasangarria eta denontzako saneamendua bermatzea”, eta honako helburu hauek ditu:

- **Ur edangarria lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa** izatea, denontzako prezio egokian.
- Denontzako **saneamendu- eta higiene-zerbitzu egoki eta bidezkoak** lortzea, emakumeen eta neskatuen premiei arreta berezia eskainiz.
- **Uraren kalitatea hobetzea**, kutsadura murriztuz eta segurtasun-baldintzetan birziklatzea eta berrerabiltzea areagotuz.
- **Ur-baliabideen erabilera eraginkorra areagotzea eta iraunkortasuna bermatzea.**
- **Ur-baliabideen kudeaketa integratua** praktikan jartzea, behar izanez gero mugaz haraindiko lankidetzaren bidez.
- **Urarekin lotura duten ekosistemak babestea eta berrezartzea**, hala nola, basoak, mendiak, hezeguneak, ibaiak, akuiferoak eta aintzirak.



Hori ahalbidetzeko, nazioarteko lankidetzeta eta garapen bidean diren herrialdeen babesa handitzeko eta uraren eta saneamenduaren kudeaketaren hobekuntzarako tokiko komunitateen parte-hartzea sustatzeko konpromisoa dago.



UNESCO Etxearen parte-hartzea Agenda 2030en eraikuntzarako eztabaida-foroetan

Testuinguru horretan, UNESCO Etxea euskal gizartean ari da lanean Agenda 2030 eraikitzen eta abian jartzen, giza eskubideen ikuspegia eta genero-ikuspegia aintzat hartzen dituen Giza Garapen Jasangarria lortzeko helburuarekin. Lan horretan, arreta berezia eskaintzen zaio urari garapen hori ahalbidetzeko eta sustatzeko gako-elementu gisa. Horretarako, erakunde honek abian jarri ditu hainbat jardura; jardura horiek, alde batetik, euskal esparruan gauzatzen dira prestakuntza- eta sentsibilizazio-estrategien bidez; eta, bestetik, nazioarteko esparruan gauzatzen dira Nazio Batuen esparruko eztabaida eta erabakiguneetan duten eraginaren bidez.

Nazioarteko esparruan:

- **Agenda 2030en eraikuntza-prozesuen jarraipena eta parte-hartzea.** UNESCO Etxeak jarraipena eman die Agenda 2030 eraikitzeko eta zehazteko nazioarteko prozesuei, eragiteko eta informazioa biltzeko, gero informazio hori herritarrei eta gizarte-erakundeei transmititzeko helburuarekin. Gizarte-zibilak parte hartzen duen Nazio Batuen esparruko plataforma, foro eta beste gune batzuetan ere egon da. Agenda 2030en edukiak zehazteko Nazio Batuetan egin ziren gobernu arteko negoziazio-gailurren esparruan, UNESCO Etxeak eztabaida-foroetan hartu zuen parte, GKEen eta erakunde publikoen arteko elkarrizketa- eta lankidetzeta-guneak ezartzea, indartzea eta kontuan hartzea eskatzeko, batez ere tokian tokiko eta eskualdeko esparruan.
- Garapen Iraunkorrerako **Agenda 2030 onartu zen Nazio Batuen Gailurrean parte-hartzea (2015eko irailaren 25etik 27ra)**. Gailur horretan 150etik gora gobernuburu eta munduko buruzagi bildu ziren nazioarteko garapen-agenda berria sinatzeko helburuarekin “neurri guztietako pobrezia amaiara emateko, atzera-bueltarik gabe, leku guztietan eta inor atzean utzi gabe” (Ban Ki-Moon Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren hitzetan). UNESCO Etxea mundu osoko akordio handi horren lekuko izan ziren gizarte zibileko erakundeetako bat izan zen eta gailurraren babesean antolatutako hainbat saiotan hartu zuen parte.

Gainera, UNESCO Etxeak beka bat eskaini zuen. Beka horrek aukera ematen zion kazetari bati gailur horretan parte hartzeko prentsa onetsi gisa gertakariaren jarraipena egin ahal izateko estatuen arteko negoziazioak hurbiletik ezagutzeko eta gailurrean lortutako akordioak euskal gizartean zabaltzeko.

- **“World Water Week” deiturikoan parte hartzea.** UNESCO Etxeak, 2015ean, “Ura eta Garapen Iraunkorra” izenburupean Stockholmen egin zen Uraren Munduko Astea hartu zuen parte. Nazioarteko erreferentziazko foroa da hau, eta adituek, erabaki-hartzaileek, gizarte zibileko profesionalak eta erakundeek, uraren eta saneamenduaren sektoreak munduan garatzeko dituen erronka nagusien inguruan ikuspegiak, esperientziak eta ideiak trukatzeko dituzten, estrategiak koordinatzen dituzten eta ezagutza sortzen duten gune gisa finkatu da. UNESCO Etxeak informazioa biltzeko eta gai horren inguruan nazioartean egiten ari diren eztabaidetan lekuko izateko helburuarekin hartu zuen parte, gero bere hausnarketetan eta lanetan txertatu ahal izateko.

Euskal esparruan:

- **Ikasle eta profesionalentzako hainbat gairi buruzko Prestakuntza Jardunaldiak eta Ikastaroak** iritzi kritikoa eta irizpide prestatuak emateko. Adibide gisa, honako hauek nabarmentzen dira:

- » **Kazetari eta komunikatzaileentzako** ikastaroa: **“Garapenari buruz informatzea: nazioarteko agenda eta tokian tokiko eragina”**. Prestakuntza horren ondorioz, hainbat komunikabidetako profesionalak GIHei, genero-berdintasunari, migratzaileen egoerari, garapen-politikei eta abarri buruzko artikulak egin zituzten.
- » Jardunaldia eta sareko ikastaroa. **“Ura eta saneamendua erabiltzeko eskubidea GIHen esparruan”, GKEentzat, unibertsitateko ikasle eta irakasleentzat, ur-operadoreentzat** eta, oro har, gizartearentzat. Ikastaro horren bidez, ikasleek ura eta saneamendua izatearen eta pobrezia- eta garapenaren artean dagoen loturari buruzko kontuak jakin ahal izan zituzten ura eta saneamendua izateko giza eskubidearen arau-esparruan eta Agenda 2030 berriaren esparruan, bai eta Agenda 2030ek ura eta saneamendua izateko giza eskubidea mundu osoan gauzatzen nola lagundu dezakeen ere.
- **Herritarrak sentsibilizatzeko eta herritarrek parte hartzeko ekintzak.** Ekintza horien bidez hausnarketa eta eztabaida sustatzen dira, bai eta gure ingurune hurbilenean eta beste herrialde batzuetan gertatzen diren gizarte- eta ingurumen-arazoekin konpromisoa hartzeak duen garrantzia ere. Gizarte zibilak sarritan pentsatzen du Nazio Batuen erakundeak tokiko errealitatek urrunduta daudela. Dena den, badira bideak herritarrek eta GKEek beren iritziak eta proposamenak estatuek parte hartzen duten gailur eta batzarretara helarazteko.



Uraren eta saneamenduaren sektoreko profesionalak prestatzeko ikastaroa



“Mi mundo – Nire mundua” inkestako parte-hartzaileak Bilbon

- » **“Mi mundo – Nire mundua” inkesta**¹. Nazio Batuek 2013ko urtarrilean abian jarri eta 2015 arte iraun zuen kanpaina, herritarren iritziak, lehenetsunak eta ikuspegiak jasotzeko eta munduko buruzagiei jakinarazteko bitarteko gisa, kontuan izan zituzten Agenda 2030 egiteko orduan. Pertsona parte-hartzaileek sei jarduera-eremu aukeratu behar zituzten (16ren artean), haien iritziz beren bizitzetan hobekuntza eragingo zutenak. Munduko emaitzek adierazi zuten beharrezkotzat jotako sei jarduera-eremuak honako hauek zirela: hezkuntza ona, osasun-laguntza hobea, enplegu-aukera hobea, gobernu zintzo eta arduratsua, elikadura egokia eta prezio egokian eta ura eta saneamendua izatea. Bost kontinenteetako 193 herrialdeetako ia 10 milioi pertsonak osatu zuten inkesta Internet bidez, inprimatutako inkesten bidez eta telefono mugikorren bidez. UNESCO Etxeak hartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan kanpaina hori egiteko ardura, hiru probintzietan barrena ibiliz eta sarean parte hartzeko bide bat irekiz.
- » **“Global Call to Action for Water Justice” kanpaina**, 2015ean egin zena Agenda 2030 egiteko prozesuan. Nazio Batuetako estatu kideei ura eta saneamendua helburuen artean jartzeko eta bigarren mailan ez uzteko eskatzea zen

1 “Mi mundo – Nire mundua” inkesta. <http://data.myworld2015.org/>



Ura kultura-ondareztat hartzen duen jardunaldia, UNESCO Etxeak antolatuta



Urari buruzko hezkuntza-materialak, UNESCOk eta Nazio Batuek argitaratuak

kanpainaren xedea. UNESCO Etxea izan zen kanpainarekin bat egin zuen eta jendeari aditzera eman zion gizarte zibileko erakundeetako bat.

- » **Uraren Munduko Eguna (martxoak 22) eta Saneamenduaren Munduko Eguna (azaroak 19).** Nazio Batuek sustatutako bi egun horiek atenzioa eman nahi dute ur gezak, bere kudeaketa jasangarriak eta saneamendua izateko duen garrantziari buruz. UNESCO Etxeak, bere sentsibilizazio-lanaren barruan, egun horiei buruzko jarduerak antolatzen ditu eta urte bakoitzean modu berezian kontuan hartu nahi diren eduki espezifikoak zabaltzen ditu. 2015ean, Saneamenduaren Munduko Eguna ospatzeko, "WC errealitate desberdinak" erakusketa ikusteko aukera izan zen Gasteizen, Bilbon, Getxon eta Madrilan, eta Saneamendua izateko Giza Eskubideari buruzko hitzaldiak antolatu ziren.

UNESCO Etxeak, gainera, Bilboko egoitzan dokumentazio espezializatuko zentroa dauka. Bertan dokumentu bilduma zabala dauka, ia 3.000 argitalpen, UNESCOk, Nazio Batuetako organismoek (liburutegi hau Nazio Batuen Informazio Publikoko Sailari elkartua baitago), eta beste GKEek, erakunde publikoek etab. argitaratuak. Zentro hau jendearentzat irekita dago eta mailegu zerbitzua eskaintzen du. Hainbat gairi buruzko informazioa eta agiriak eskaintzen ditu: giza eskubideak, iraunkortasuna, hezkuntza, kultura eta ura; gizarte trebatuagoa eta kritikoagoa izan dadila.

Egilea: UNESCO Etxea eta Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo

Argazkiak: UNESCO Etxea | **Kofinantziatzaia:** Bizkaiko Foru Aldundia | **Diseinua eta maketazioa:** Seteseoitto | **Inprimaketa:** Imprenta Garcinuño

Lege Gordailua: BI-371-2016

DHAS Bizkaiko taldearen, UNESCO Etxearen, eta Zabalketaren web-orrietan ere eskuragarri dago, gaztelaniaz nahiz euskaraz

www.forobizkaiaadhas.org / www.unescoetxea.org / www.zabalketa.org